



Liztor beltzaren kanpainari buruzko informazioa (material osagarria) galdetegia egin aurretik lantzea komeni da.

## ERLEAK

(Galdetegia herritarrentzat)

### DATUAK:

Sexua:  Gizonezkoa  Emakumezkoa

Adina:  25 bitartekoa  25-45  45-60  60-90

1. Zure ustez erleak beharrezkoak al dira?

Bai  Ez  Batzuetan

2. Zer ematen digute beraiek eziaz gain?

Argizaria  Propoleoa  
 Eztia  .....

3. Kontsumitzen al duzu erleen produkturik? Zein?

---

4. Zergatik edo zertarako erabiltzen duzu produktu hori?

5. Ezagutzen al duzu erlezainik Azpeitian? Non ditu erlauntzak?

---

6. Ba al dakizu bere kontsumorako dituen erleak ala produktuak saldu egiten dituen?

Bere kontsumorako  Ateratzen dituen produktuak saltzeko  
 Ez dakit  .....

7. Gaur egun erleak mantentzeak lan handia eskatzen du. Ba al duzu horri buruz informaziorik?

Bai  Ez

8. Erleek dituzten arazoak kontuan izanda (kutsadura, gaitzak, Asiako liztorra...), desagertuko direla uste al duzu?

Bai  Ez  Ez dakit

9. Zertan nabarituko genuke erleak desagertuko balira?

---

10. Zerbait egin al dezake Udalak erleak herrira ekartzeko edo herrian erlezainak gehitzeko? Zer egin beharko luke?

---

# ELIKADURA JASANGARRIA

## JARDUERAK:

- Galdetegia herritarrei egiteaz gain, ondo legoke konparaketa bat egitea gure aitona-amonak erleek emandako zein produktu kontsumitzen zuten eta guk zer kontsumitzen dugun (adb: argizaria eleizarako kandelak egiteko erabiltzen zuten, gaur egun erabiltzen al dugu horrelakorik?). Konparaketa hori power-pointaren bidez egin dezakezue gelakideen aurrean aurkezteko.
- Erlezainen bat ezagutuz gero, hari elkarrizketa edo bidegrabaketa egitea lagungarria izango litzateke, erleen egoera gure eskualdean ulertzeko.

## BALORAZIOA:

- Balorazioa egiteko honako puntuak eduki ditzakezue kontuan:
  1. Aitona-amonen garaitik egoera zertan aldatu da?
  2. Hobetu al daiteke?
  3. Zertan hobetu daiteke eta nork? Udalak, herritarrok, ikasleok...
  4. Iaz hartutako konpromisoak betetzen al dira, nola?
  5. Konpromiso berririk hartzea beharrezkoa al da? Zein?
  6. Udalerako proposamenak egin aurretik, iazkoak begiratu ez errepikatzeko.